



Apaizetxeari eta auzo-udalari buruzko batzarra larunbatean, Ereñotzun

San Antoniotako kartel lehiaketa Okene Abregok irabazi du eta finalera iritsi dira Jon Mari Beasain eta Leire Lunaroren lanak.

BATZARRA deitu dute Ereñotzun larunbaterako. Apaizetxe berritua izango da batzarreko gaietako bat. Apaizetxea, eliza ondoko eraikina, Elizarena da eta urte jakin batzuetau auzoari utzi dio erabiltzeko. Apaizetxeko obretako lehenengo fasea duela gutxi bukatu dute, eta auzolanean garbitu eta txukun-txukun utzi ondoren, prest dago ikusteko eta erabiltzeko. Egindako lanaren emaitzak ikustearaz gain, eraikinari zein erabilera eman ere eztabaideatuko dute.

Auzo-udalaz ere hitz egingo dute batzarrean. 2006-an Hernaniko Udalak plenoan onartu zuen auzo-udalaren prozesua martxan jartzea Ereñotzun. Auzo-udala Hernaniko Udalak Ereñotzun izango lukeen delegazio moduko bat izango litzateke, bere konponentzia, baliabide eta aurrekontuarekin. Momentuan auzo-udala zein balintzatan gauzatuko litzatekeen negoziatzen ari dira.

Batzarra goizeko 10:30-



Apaizetxea auzolanean garbitzen, hilaren 10ean.

etan izango da, Apaizetxeen. Auzotar guztiak gonbidatu dituzte.

San Antoniotako kartela
Bestalde, laister izango diren San Antonio jaietarako presatzen ari dira Ereñotzun. Aurtzen lehenengo aldiz anto-

latu dute jaietarako kartel lehiaketa eta dagoeneko erabaki da zein den irabazlea: Okene Abrego. Ereñotzuko auzo elkartek finalera iritsi diren beste bi lan ere aipatu nahi izan ditu, Jon Mari Beasainena eta Leire Lunarena, hain zuzen. Auzo

elkartek eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartu duten guztiei eta animatu nahi izan ditu datorren urtean berriro ere aurkezteko. San Antoniotako programa laister argitaratuko da eta bertan ikusi ahal izango da kartel irabazlea. //

Kantuz Eguna izango da larunbatean eta abesbatza kontzertu berezia ari da prestatzen

Kontzertua arratsaldeko 19:30etan izango da, Milagrosan.

KANTUZ Egunerako presatzen ari da Kantuz abesbatza buru-belarri. Kantuz Eguna abesbatzak urtean egiten duen kontzerturik garrantzitsuenetako da, eta

herriko abesbatzaren jarraitzaileek asko estimatzen dutena. Abesbatzak jakinarazi duenez, denetariko abestiak sartu dituzte egitarauan eta tartean badira ba-

tzuk berriak.
Guztira 13 dira abestuko dituzten kantuak: *Heleluya*, *Kantuz gara*, *Canción de jinete*, *Ama, Laudate pueri dominum*, *Hymne a la nuit*, *Nahi zuyayin*,

Te quiero, Bell quiens mavie, Ojos brujos, Errötazaia, Volver etá País Basque.

Kontzertua arratsaldeko 19:30etan izango da, Milagrosan. //

**mikel armendariz**
proiektu eta instalazio elektrikoak
Tel. 649 846 422 - 20.120 HERNANI

ezkati
ileapaindegia
Bulegoa
Hernani
943 55 66 56
Hartu ordea

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITTEGIA

Kardaberaz 39
943 55 27 87

❖ KOXKA
Ezinduen elkarreka bilera gaur

Koxka Hernaniko ezinduen elkarreka bilera irekia egingo du gaur. Elkarreka legalki osatzeko prozesuaz eta kiroldigia berritzeko proiektuan parte hartzeaz hitz egingo dute. 17:00etan, Biterin. //

❖ GOIZ EGUZKI
Tristura eta ezkortasunari buruzko hitzaldia gaur

Goiz Eguzki zentro sozialean gaur hitzaldia izango da, ezkortasunari eta tristurari aurre egiteko teknikei buruz. Gaur, arratsaldeko 17:00etan. //

❖ ERROMESALDIA
Lurdeserako izen ematea gaur bukatuko da

Datorren ekainaren 1ean erromesaldia antolatu dute Lurdesera. Gaur da izena emateko azkeneko eguna. San Joan Bataiatzailea parrokiko bulegoan, 20:00-estatik 21:00etara. //

❖ URRETXA
Hechora joateko izen emateko azken eguna gaur

Urretxa Mikologi Elkartek irteera antolatu du Hechora hilaren 24rako. Gaur bukatuko da izena emateko epea, elkarrekin bullegoan, Kale Nagusiko 6garren zenbakian. //

❖ UDALA
Gobernu batzarra gaur

Gobernu batzarra izango da gaur. Besteak beste, Orbegozo urbanizatzeko egitasmoaz eta udaleku irekiak koordinatzeko zerbitzuaren adjudikazioaz hitz egingo dute. Gaur, 14:00etan. //

TELEFONIAK • **Taxiak:** 943 550093 • **Udaltzaingoa:** 943 248900 • **DYA:** 943 464622 **Autobusak:** Herri barruko: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 • **Anbulatorioa:** 943 006666 • **Jokalari anonimoak:** 943 331103 • **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103 • **FARMAZIAK** • **Egunez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 • **Gauze:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA

GAUR Giro atsegina izango da. Temperatura epeltzen joango da eta termometroak 20 °Ctik gertu ibiliko dira. Ostarteak eta lainoak tarteakutu dira.

BIHAR Behe lainoarekin esnatuko gara, baina hauak desageru eta ostarteak zabalduko dira. Arratsaldean xirimia egin dezake. Temperaturak goranzko joera.

(euskarainet)

Zaborrak noiz eta nola bota behar diren gogorazi die Udalak merkatari eta herritarrei

Kontainer ezberdinak nola erabili behar diren eta etxeko tresnak noiz eta nola bota behar diren azaldu du Udalak, besteak beste.

HERNANIKO Udalak zaborrak noiz eta nola bota behar diren gogorarazi nahi izan die herritarrei eta merkatariei. Bestalde, altzariak eta tresna haundiak nola erretiratu azaldu du, baita kolore ezberdinako kontainerretan zer bota behar den ere bai. Azkenik denda ezberdinek zaborrak noiz eta nola bota behar dituzten azaldu du.

Tresna haundiak eta altzariak

Etxeko tresna haundiak eta altzariak ezin dira edozein egunetan erretiratu. Udalak azaldu duenez, aldez aurretek, 943 33 23 11 telefonora deitu behar da eta tresnak non utziko diren azaltzeaz gain, tresna kopuruaren inguruko informazioa ere utzi behar da erantzungailuan. Altzariak astearte gauetan utzi beharko dira kontainer ondoan. Bide batez, gogorarazi dute, ahal dela, kontuz ibiltzeko, tresna haundiek ez dezaten espaloi osoa hartu.

Kontainer ezberdinak nola erabili

Etxean sortzen diren hondakin ezberdinak nola bota behar diren ere gogorarazi du Udalak. Zaborrak ondo itxitako plastikozko poltsetan bota behar dira kontainerretara, arratsaldeko 19:00etatik 22:00etara. Poltsak ondo itxita egon beharko dute, jarriak gabe. Zaborrak behar bezala ez botatzeagatik lurrean zerbait geratzen bada, sortutako zikinkeriaren erantzulea erabiltzailea dela azaldu du Udalak.

Horrez gain, Udalak eskatu die herritarrei gaika sailkatu daitezkeen zaborrak, bakoitzak bere kontainerrean botatzeko:

- Edukontzi urdina: etxeetako paper eta kartoia jasotzeako bakarrik erabiliko da. Ezingo dira bertan sartu enpresak eta merkataritzak guneetako paper eta kartoia.

- Edukontzi horia: plastikozko, metalezko eta brick ontziak biltzeko bakarrik erabiliko da. Edukontzi ho-



Udalak eskatu die herritarrei zaborrak gaika sailkatzeko.

rian ezin dira honako gai-hauek sartu: jostailuak, elektrogailu txikiak, biberioiak, gomazko eskuilarruak, orraziak, hortzetaiko zepiloak, eltzeak, zartagina eta etxerako gainerako tresnak eta orokorrean aipatutako antzekoak diren elementuak.

• Edukontzi txiki horia. Pilak: botoi pilak eta ohiko pilak jasotzeko erabiliko dira.

Merkatariantzako kartoia jasotzeko zerbitzua

Merkatarieei dagokienean, Udalak garbi utzi nahi izan du, lehen aipatutako kontainerretan dendek ezin izango dutela kartoirik utzi. Honen harira, azaldu du, kartoi kopuru haundia sortzen duten dendek eskura dutela atez ateko zerbitzua, debalde, San Markos Mankomunitateak eskaintzen duena. Kartoi bila asteartean pasatzen dira, dendaz denda, goizeko 09:00etatik aurrera. Zerbitzua jasotzen ez duten lehenbailehen eman behar dute izena, zerbitzua jasotzen hasteko.

Irekiten den edozein dendak berrik zerbitzu honetan izena eman beharko du, jarduerako udal baimena eskuratzeko.

Fruta dendak

Fruta denden kasuan, Udalak aipatu du dendetatik sortzen diren plastiko edo kartoizko ontziak ezin direla bide publikoan edota kontainerretan

utzi. Ontziak Lasarten horretarako prestatutako Merkabugati zonaldera eraman behar dira, edo bestela, ohiko hornitzaleari itzuli.

Fruta eta barazki hondakinak, zuzenean eta inolako ontzirik erabili gabe, bota beharko dira ohiko edukiontzira. Hau 20:00etatik 22:00etara egin behar da.

Udalerrian fruta denda berri bat irekiko balitz, orain arte azaldutakoak bete beharko ditu. ■

Zenbait ohar

ALTZARIAK

Astearte gauetan utzi behar dira. Aldez aurretik telefonoz deitura: 943 332 311

BETIKO KONTAINERRA

Poltsak ondo itxita bota behar dira, eta 19:00etatik 22:00etara.

MERKATARIEN KARTOIA

Eskura biltzen da, debalde, asteartero, 09:00etatik aurrera. Aldez aurretik izena eman behar da. Merkatarieki ezin dute kartoia edukionti ordinera bota.

FRUTA DENDAK

Ontziak eta plastikoak Lasarteko Merkabugatira eraman behar dituzte, edo hornitzaleari itzuli.

Frutak eta barazki hondarrak zuzenean kontainerrera bota behar dituzte, poltsa edo ontziean sartu gabe. 20:00etatik 22:00etara.

♦ ERAKUSKETA

Haurrek ingurumenari buruz egindako lanak ekainean ikusi ahal izango dira

Biterin ingurumenari buruzko erakusketa zegoen iragarrita egun hauetarako, haurrek egina. Jakinarazi dute erakusketa ekainaren 9tik 13ra izango dela. Arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Biteri kultur etxeen. ■

♦ TXANTXANGORRI ELKARTEA

Senda Viva parkera joateko plazak badaude oraindik ere

Txantxangorri elkarrean Nafarroako Senda Viva parkera irteera egingo du ekainaren 7an. Irteerak 15 euro balio du haurrentzat eta 30 euro helduentzat. Prezioaren barruan sartzen da autobusa eta parkeko jatetxeen egingo duten bazaria. Urteroko moduan, marrazki, idazlan eta argazki lehiaketa izango da. Izena eman nahi duenak Txantxangorriko bulegora joan behar du. ■



Parkeko artz parea.

◆ MUS TXAPELKETAK

Aralar tabernan partidak gaur

Aralar tabernan gaur honako partidak jokatuko dira: Xarpamitxelena/Pako-Pantxo; Andoni-Ricar/Xabier-Iñaki; Roberto-Iñaki/Joxe Mari-Joxemari; eta Julio-Mantxa/Igor-Miguel. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA
Manuel Luis Almena
'KATXO'
Orain egun gutxi hil zen

Manuelen emazteak, seme-alabek eta gainerako ahai-deek eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera, gure ondoan izan zareten guztiei

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2008ko maiatzaren 20an

♦ IRAGARKI MERKEAK ♦

Sukalderako laguntzailea behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan.

Interesatuek deitu: 635 746 559

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldetua, komuna, 60 m2ko garibidea eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

Hernanin aukerako pixua salgai. Sukaldetua, 3 logela, komuna, kalefakzioa... Kanpoaldera.

Deitu: 628 116 949.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologiko, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebral, kromoterapia, drainaje linfaticoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)